

Hizkuntza-jolasak Haur Hezkuntzan

Ahozko gaitasun komunikatiboa lantzen



Dokumentu honetan Haur Hezkuntzan ahozko hainbat esamolde eta egitura lantzeko baliagarri izan daitekeen bide bat proposatzen da: hizkuntza-jolasetan elkarrizketa itxiak erabiltzea.

Ez da gida bat: irakasleentzat baliagarriak eta praktikoak izan daitezkeen jarduerak proposatzeko ahalegina egin da eta bakoitzaren esku egongo da norberaren eta taldearen ezaugarrietara jarduerak moldatzea (ikasleen adina, jardueren konplexutasuna ...).

LEHENENGO ATALA

- 1- Elkarrizketa itxiak ahozko gaitasuna lantzeko tresna moduan
- 2- Hizkuntza-jolasak
 - 2.1- Proposatzen diren hizkuntza-jolasen ezaugarriak
 - 2.2- Zer nolako esamoldeak lantzeko erabil daitezke?
- 3- Proposamenak
 - Zertarako?
 - Nor naiz?
 - Forma ezkutuak
 - Besarkada kutxa
 - Ipuin marraztuak
 - Kanika-kanika
 - Eguneroko errutinak

1.- Elkarrizketa itxiak ahozko gaitasuna lantzeko tresna moduan

Elkarrizketa = Beraien artean erabili behar dituzten esaldiak dira.

Itxiak= Irakasleak ematen dizkie esaldiak, beraiek soilik erabili egin behar dituzte.

Dokumentu honetan proposatzen diren jarduerak, ikastetxeetan Haur Hezkuntzako ikasleen ahozko gaitasun komunikatiboa lantzeko tresna lagungarri moduan proposatzen dira.

Hizkuntzaren hainbat egitura ikasi eta barneratzeko tresna egokia da landu nahi dugun hori askotan errepikatzea, eta dokumentu honetako tresnak izaera hori dute. Eginda ematen dizkiegun esaldiak dira: ikasleek ez dute ezer sortu eta garatu behar, soilik erabili egin behar dituzte.

Proposamenak lantzerakoan bi ideia eduki dira oso kontuan:

- Elkarrizketak dira
- Jolasak dira

Landu nahi ditugun esamoldeak beraien artean erabiltzea nahi dugu. Esaldi edo egitura horiek eguneroko harremanetan erabiltzea nahi badugu, egokia da egoera bideratuetan beraien artean askotan erabiltzea lortzea. Horregatik proposamenen helburua ez da soilik esaldi batzuk erabiltzea, beraien arteko elkarrizketak izatea baizik.

Jolas moduan lantzea proposatzen da. Elkarrizketa itxiak modu ezberdinetara erabil daitezke: hizkuntzazko errutinetan, esketx edo antzerki laburretan, abestietan... Kasu honetan jolasen bidez erabiltzea proposatzen da. Hau da: ikasleek askotan erabiltzea nahi dugu baina horretan ari direnean esaldiak modu kontzientean eta ondo pasatzen duten bitartean erabiltzea. Esaldiak ez dira eguneroko benetako egoera batean lantzen, baina egoera bideratu hauetan landuz, gero errazagoa izango da beraientzat benetako egoeretan erabiltzea, batez ere irakasleak horretan ere laguntzen badie.

Beraz, ondoko orrietan hainbat proposamen aurkezten dira, baina ez da inolaz ere gida bat osatzea bilatu: soilik hainbat ideia eta adibide aurkezten dira. Proposamenak lantzerakoan bereziki Haur Hezkuntzako ikasleak hartu dira kontuan, baina erraza da proposamenak Lehen Hezkuntzara ere egokitzea. Irakasleen esku dago jarduerak moldatzea, osatzea edo berriak sortzea.

2.- Hizkuntza-jolasak

2.1 – Proposatzen diren hizkuntza-jolasen ezaugarriak

Egoera eta ezaugarri ezberdinetako hizkuntza-jolasak erabil daitezke. Dokumentu honetan proposatzen diren hizkuntza-jolasek ezaugarri jakin batzuk dituzte:

- Ikasgelan egiteko modukoak
- Denbora tarte txikietan
- Egitura bera lantzeko jolas ezberdinak
- Jolas bera egitura ezberdinak lantzeko
- Zailtasuna/konplexutasuna ez dira kontuan hartu
- Nahi bezala moldatzeko aukera

Ikasgelan egiteko moduko jarduerak proposatu dira eta denbora tarte laburretan (ez da saio osoa behar). Beraz, hizkuntza-jolas bat eguneko saio batek tarte batean egin daiteke ikasgelan bertan. Noski, saio osoak erabili nahi badira erabil daitezke, eta ikasgelatik kanpo erabili ahal izateko ere erraza da jarduerak moldatzea.

Egitura jakin bat landu nahi badugu, jolas ezberdinak erabil ditzakegu horretarako. Adibidez, astero jolas bat. Baina jolas bera egitura ezberdinak lantzeko ere erabil daiteke. Hau da: dinamika egokia bada, nahi diren esaldi eta elkarrizketekin erabil daitezke.

Proposamenak lantzerakoan dinamika bat aurkezten da, baina dinamika hori zein adin tarteetarako den egokia ez da zehaztu. Haur Hezkuntzako ikasleak izan dira buruan, baina erraza da dinamikak aldatu eta talde ezberdinen ezaugarrietara egokitzea. Are gehiago, erraza da jolasak konplexuago edo sinpleago egitea, eta nahi bezala moldatu daitezke.

2.2– Zer nolako esamoldeak lantzeko erabil daitezke?

Irakasleak erabaki beharko du nolako esamolde edo egiturak lantzeko erabili nahi dituen hizkuntza-jolasak, baina gutxienez hiru egoeretarako balio dute:

- Gaizki erabiltzen dituzten egiturak zuzentzeko.
- Egitura berriak lantzeko.
- Hizkera informaleko esamoldeak lantzeko.

Ikasleek oker erabiltzen dituzten esamolde edo egiturak lantzeko tresna egokiak dira. Jolasen bidez modu kontziente eta dibertigarri batean landu daitezke, eta horrek egunerokotasuneko egoeretan zuzen erabiltzen hastea ekar dezake, edo gaizki erabiltzen badute eta irakasleak zuzendu nahi baldin badie, ikasleentzat askoz errazagoa izango da egitura zuzena gogoratzea.

Egitura berriak lantzerakoan ere egokia izan daiteke jolasak erabiltzea. Nahi dugun egitura hori behin eta berriz erabiliko dute eta barneratzea lor daiteke.

Hizkera informaleko esamoldeak lantzeko ere tresna aproposa da: animoak, adarra jotzekoak, eguneroko egoeretan errepikatzen diren esaldiak... Ikasle askok egoera informaletarako baliabide gutxi dute euskaraz, eta euskaraz erabil ditzaketen hainbat esamolde “arrotzak” egiten zaizkie. Hori hausteko modu bat egoera bideratuetan behin eta berriz erabiltzera bideratzea da.

3.- Proposamenak

- Zertarako?
- Nor naiz?
- Forma ezkutuak
- Besarkada kutxa
- Soinudun ipuinak
- Kanika-kanika
- Eguneroko errutinak

Zertarako?

Talde osoa borobilean jarriko dugu.

Lehenengo urratsa:

- Irakasleak objektu bat hartuko du esku artean (edozer: zerbaiten tapa, liburua, pintzel bat...) eta jolasa azalduko die hurrei: objektua eskutik eskura pasako dugu eta irakasleak egindako galderari erantzungo diote: *Bai, balio du* edo *ez, ez du balio* erantzunez. Adib: *Irati, pintzelak mukiak sudurretik ateratzeko balio du? Bai, mukiak sudurretik ateratzeko balio du* edo *Ez, ez du mukiak sudurretik ateratzeko balio.*

Aldaera:

- Behin ohitura hartu ondoren edo ikasle helduenekin, elkarri galdetu behar diotela eta beraiek asmatu behar dutela objektuaren funtzio azaldu. Erabili beharreko esaldia: *Maidar, zertarako balio du honek? Honek balio du....-ko.* Hasieran haur batzuei ezer bururatuko ez zaienez, irakasleak ereduak emango dizkie edo taldean landuko dira. Adib, pintzelaren kasuan: *honek balio du... hautsa kentzeko, makilatzeko, oinetan kili-kili egiteko, mukiak sudurretik ateratzeko...* adibide bakoitza keinu batekin lotzen saiatu. Ondoren jokua hasiko dugu. *Iker, zertarako balio du honek? Honek balio du....* bururatzeko ez bazaio edo adibidea gogoratzen ez badu, keinuekin lagunduko diogu.

Nor naiz?

Talde osoa borobilean dagoela, Dona-dona katona bidez edo, ikasle bat aukeratu eta taldearen erdian jarriko dugu. Lehenagotik txarteltxo batzuk prest izango ditugu animalien irudiekin.

Lehenengo urratsa:

- Aurretik prestatutako txarteletatik bat aukeratzeko eskatu erdian dagoen ikasleari eta aukeratu duen hori bizkarrean itsasi berak ikusi gabe. Aldez aurretik beste ikasleei aukeratu duen animalia erakutsi baina ixilik egoteko eskatu.

Bigarren urratsa:

- Talde osoak galdetuko dio erdikoari: *Mikel, nor zara zu?*
- Eta erdian dagoenak: *Ez dakit, txakur bat naiz?*
- Besteek: *Ez! Ez! Nor zara zu?*
- *Ez dakit, elefante bat naiz?*
- *Bai! Elefantea zara!*

Horrela asmatu arte.

Aukerak:

- Gaitasunaren arabera, erdian dagoenak galderak egin ditzake: *tronparik badaukat? Zenbat hanka dauzkat? Isats luzea daukat?...*

Forma ezkutuak

Kartoizko kaxa bat hartu (folio paketeenak adibidez) eta sahiets bakoitzean zulo bana egin hurrek bertatik eskuak sartzeko moduan. Denbora izanez gero, goxo apaindu. Barruan objektu ezberdinak sartuko ditugu: pilotatxo bat, puzzle zati bat, arkatza, pintzela, Lego pieza bat.... eta tapa jarriko diogu.

Lehen urratsa:

- Jokurako kanta bat aukeratu eta hura abesten hasiko gara hurrekin. Kaxa eskutik eskura joango da borobilean eta irakasleak *Geldi!* esatean, kaxa eskuartean daukan haurrak bi eskuak barruan sartuko ditu.

Bigarren urratsa:

- Ukimenaz, haurrari kaxako objektu bat aukeratzen utziko diogu. *Idurre, aukeratu duzu zerbait? Bai, aukeratu dut!*

Hirugarren urratsa:

- Irakasleak galdera itxiak egingo dizkio: *borobila da? Ez, ez da borobila. Luzea da? Bai, luzea da? Punta zorrotza dauka? Bai, punta zorrotza dauka....*
- *aukeratu duzu zerbait? Bai, aukeratu dut!*

Laugarren urratsa:

- Objektua zer den argi samar egon litekeenean, borobilekoei galdetuko diegu nork dakien zer den. *Joseba, zuk badakizu zer den? Bai, badakit! Ondo, galdeiozu Aneri. Ane, arkatza da? Bai, arkatza da!*

Kontuan izatekoak:

- Kaxan objektu dimentsiodunak sar ditzakegu edo kartulina gogorrean egin eta moztutako irudiak (hau txikientzat zailegia da, baina ez helduenentzat). Noizean behin objektuak aldatu.

Besarkada kutxa

Kutxa berezi bat sortuko dugu: besarkaden kutxa (edo muxuena, laztanena...) eta bertan muxu, besarkada... ezberdin moten irudiak sartuko.

Adib:

- Besarkada okerra: bizkarka ematen dena
- Otarteko besarkada: hiruen artean ematen dena
- Sudur muxua: sudurrak igurtziz
- Ipurdi muxua: ipurdiak igurtziz
- ...

Besarkada kutxa zabaltzea tokatzen zaion haurrari txartel bat ateratzeko eskatuko diogu. Behin hori eginda:

- *Jon, norentzat da besarkada?*
- *Xubanentzat!*
- *Esaiozu berari*
- *Xuban, besarkada zuretzat da*
- *Eskerrik asko!*

Orduan, aukeratutako haurra zutitu eta bestearen alboan jarriko da eta besarkadaz galdetu beharko dio jaso baino lehen:

- *Nolako besarkada da?*
- *Besarkada okerra!!!!*

eta elkar besarkatuko dute.

Soinudun ipuinak

Hurrei gelan kontatzen zaizkien ohiko ipuinak hartuko ditugu oinarri, baina zenbait moldaketa txertatuko dizkiegu.

Lehen urratsa:

Hurrei ipuina kontatu.

Bigarren urratsa:

Ikasleak ipuineko pertsonaia bihurtu eta elkarrizketak beraiek esan ditzatela. Aukeratu behar haina ikasle eta bakoitzari pertsonaia bat eman. Unea iristean, elkarrizketa egin dezatela. Irakaslea narratzaile soila izango da.

Gau batean, otsotzar gaiztoa lehenengo txerritxoaren etxera inguratu eta:

- *Txerritxo utzi zure etxean sartzen!*
- *Ez, ez, ez dizut utziko!*
- *Ba putz eginez zure etxea puskatuko dut!*

Hala, otsoak putz eta putz! Etxea puskatzea lortu zuen eta lehen txerritxo irentsi...

Pertsonairik gabeko ikasleek, ipuinari soinua jar diezaiekete. Adib: *eta bapatean izugarrizko ekaitza sartu zen, tximistak, haizea, trumoiak, euria....* Ikasleek soinu horiek denak egin beharko dituzte.

Aldaera:

Beste egun batean elkarrizketekin jarraitu baina guk egindako soinuei esanahia jartzea eskatu. Adib: *Bere etxean gosaltzen ari zela, goizeko zazpitan, tok-tok-tok!* Hurrek: *atea jo zuten!*

Kanika-kanika

Haurrak borobilean eseriko dira lurrean. Haur bat erdian zutik eta kanika bat eskutan duela.

Lehen urratsa:

Kontsignak emango ditugu:

– Eskuak zabalduuuuu..... ta begiak? Itxiiiiii!

Behin horrela daudela, talde osoa abesten hasiko da:

Kanika txiki bat dabil
saltoka eskutik eskura
Nork ote du? Nork ote du?
Nork ote du gure kanika?
Kanika! Kanika! Kanika!

– *Eskuak itxiiiiii.... eta begiak zabaldu!*

Bigarren urratsa:

Irakasleak galdera egingo dio norbaiti:

– *Uxue, nork uste duzu daukala kanika?*

– *Erikek!*

– *Ba galdeiozu...*

– *Erik zuk daukazu kanika?*

– *Ez, nik ez daukat.*

– *Erik, nork uste duzu daukala kanika?*

– *Izarok!*

– *Ba galdeiozu...*

– *Izaro, zuk daukazu kanika?*

–

Asmatu arte. Asmatu duena erdira pasako da eta jolasa errepikatuko dugu.

Kontuan hartzekoak:

– Sarri esaldiak mozteko joera dute hurrek eta guk esaldi osoak esatea nahi dugu. Intentsitatearen arabera, again hasieran elkarrizketa osoak eskatu eta gero dinamika bera erraztu.

– Honen antzeko beste jolas pila bat badaude, baliatu hurrek oharkabeen euren arteko elkarrizketa itxiak erabiltzeko.

Eguneroko errutinak

Pilotatxo bat izango dugu gelan. Asteko egunaren arabera, ikasle bati edo batzuei galderak egingo dizkiegu. Beti berdinak eta erantzun osoak eskatuko zaizkie.

- Astelehenetan: *asteburua non pasa duzu? Norekin?*
- Asteartetik ostiralera: *gaur zer gosaldu duzu? Norekin?*

Behin ohitura hartu dutenean, gelako arduraduna izan liteke adibidez gelakide bati galdera egiten diona eta ez irakaslea.

Eguneko gela arduradunarekin baita ere:

- Eguna eta eguraldia: *Zein egun da gaur? Gaur asteartea da. Zer eguraldi egiten du? Gaur euria ari du.* Eta horrekin batera eguraldi/egunaren txokoan txarteltxoak itsatsi.

Denekin:

- Zerrenda pasa: *Urtzi etorri zara? Bai hemen nago!....* Norbait etorri ez denerako, esaldi edo hitz jolasen bat erabili denek esateko. *Unaiek piper! gelara laister!*